

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

ERABAKIA, 2010EKO EKAINAREN 28KOA, HABEREN AZTERKETA-BATZORDEARENA, ARGITARA EMANEZ HELDUEN EUSKALDUNTZEAREN OINARRIZKO KURRIKULUAREN LAUGARREN MAILA EGIAZTATZEKO AZTERKETEN PROBA IDATZIAREN BEHIN-BEHINEKO EMAITZAK.

HABEren zuzendari nagusiaren Ebazpen bidez, hain zuzen 2010eko otsailaren 3koaz (martxoaren 8ko EHAA), egin zen 2010 urteko azterketen deialdia, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluan ezarritako laugarren maila egiaztatzeko proba idatzia egin ondoren, eta aipatutako Ebazpenaren 20. artikuluan ezarritakoaren arabera, bidezkoa da probaren behin-behineko emaitzak argitaratzea. Hori dela eta, honako hau

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- Argitara ematea Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluaren laugarren maila egiaztatzeko proba idatziaren behin-behineko emaitzak.

BIGARRENA.- Interesatuak aukera izango dute ekainaren 29tik uztailaren 3ra, biak barne, erreklamazioak egiteko. Erreklamazioak idatziz aurkeztu beharko dira, 2010eko otsailaren 3ko Ebazpenaren 7. artikuluari jarraiki, dagokion Lurraldeko Kalifikazio-Azpiatzordearen aurrean, www.habe.euskadi.net atariko erreklamazio-inprimakia betez.

Donostia-San Sebastián, 2010eko ekainaren 28an.

HABEren Azterketa-batzordearen izenean,



Izp.: Joxe Joan González de Txabarri Miranda